

HAUR HEZKUNTZA

0-3 ZIKLOA

ARAUTEGIA

Jarraian aurkezten dugun arautegia, Zubi Zaharra Ikastolako Haur Hezkuntzaren 0-3 zikloaren funtzionamendu on baterako arautegia da.

Balmasedan, 2011ko irailaren 1ean.

Sarrera-irteera arauak:

- a) Irakaslearen ordutegia errespetatuko da. Umeak ezin dira ordua baino lehenago ekarri, ezta ordua baino beranduago jaso ere.
- b) Etxera bazkaldu ondoren joaten ez direnek, lo-kuluxka egingo dute eta 15:30tik aurrera irtengo dira.
- c) Umeak jasoko dituzten pertsonak aldeztu aurretik esandakoak baino ezin dira izan. (I eranskina)
- d) Umea jasotzera aurrez identifikatu gabeko norbait badator, umea ezin izango du eraman eta dagokion gurasoari abisua pasako zaio.

Gelako arauak:

- a) Jantzi guztiak markatuta (izena eta abizena) ekarri eta txamarretan eskegitzeko zinta jarri behar da.
- b) Umeek ez dituzte ekarriko arriskutsuak izan daitezkeen objektuak (kateak, eskumuturrekoak, ilarako gomak, urkilak...).
- c) Umeek aldatzeko erosoak diren jantziak erabiliko dituzte (petorik ez, tiranterik ez, gerrikorik ez, buzorik ez...)
- d) Gurasoak ez dira gelan sartuko.
- e) Jolastokian ezin da geratu ikasleen ordutegi lektiboak irauten duen bitartean. (9,00-13,00 eta 15,00-16,30)

Janari arauak:

- a) 8:30ak baino beranduago sartzen diren umeak etxetik gosalduta etorriko dira.
- b) 13:00ak baino beranduago sartzen direnek ez dute bazkaltzeko aukerarik izango.
- c) Jantokiko umeak 13,30-13,45 bitartean irtengo dira eta gurasoak pasabidean egongo dira umearen zain, bestela 15,30etan atera beharko dira.
- d) Etxetik janaria ekarri gero, horretarako erabiltzen diren poteek, poltsek...ondo markaturik egon behar dute.
- e) Umeek ez dute janaririk ezta gozokirik ere ekarriko. Urtebetetze egunetan izan ezik.

Ordutegi Txandak:

- a) Ikasturte hasieran eskaturiko ordutegi txanda ikasturte osoan zehar mantendu beharko da. Uztailaren kasuan, Ikastolako Artezkaritza Kontseiluak erabakiko du salbuespenak onartzea edo ez onartzea.
- b) Ordutegi zabalaren kasuan, sarrerak eta irteerak eskola ordutegikoekin bat badatoz haurtzaindegiko umeak gainontzeko ikasleak sartu/irten ondoren sartuko/irtengo dira.
- c) Eskola ordutegiaren kasuan, umeak LH-ko umeak sartu ondoren sartuko dira eta LH-koak atera baino lehenago aterako dira (9,05etan eta 12,55etan).
- d) Haurtzaindegiko ordutegi txanda erabiltzen dutenen kasuan, gutxienez aste betez berdinduz mantendu beharko dute. Ezin da aste barruan bi edo gehiagoko ordutegi txanda ezberdin izan.
- e) Haurtzaindegiko ordutegi txanda aldatzeko, gutxienez 7 egun naturaleko epea bete beharko da. Hau bete ezean, ez da ordutegi berria onartuko eta umeak aurreko ordutegiarekin jarraituko du.

Idei, kexa eta ekarpenen aurrean prozedura:

- a) Gurasoren batek gela arloa (hezkuntza) ukitzen duen ideia, kexa edo ekarpenik balu, bere gelako tutoreari lehendabizi jakinarazi beharko dio. Guraso honek, jasotako emaitzarekin konforme ez balego, Ikastolako Idazkaritzan hitzordua eskatuko du tutorea eta ikasketa buruarekin batera biltzeko eta egoerari irtenbidea bilatzeko.
- b) Gurasoren batek beste motako ideia, kexa edo ekarpenik balu (antolaketa, arautegi, kuota ekarpenak...), bere gelako tutoreari lehendabizi jakinarazi beharko dio. Guraso honek, jasotako emaitzarekin konforme ez balego, Ikastolako Idazkaritzan hitzordua eskatuko du zuzendariarekin biltzeko.

Gaixotasunen prozedura:

- a) Umea gaixorik badago edota zerbait kutsakorra badauka ezin da ikastolara etorri. Gaixotasunak eta etxean egoteko denbora ondorengo orrian duzue. (II eranskina).
- b) Ume batek alergiaren bat edo osasun arazoren bat badauka, gurasoek berehala jakinarazi beharko dute.
- c) Ume bati salbuespen gisa sendagaien bat eman behar bazaio, gurasoek errezeta ekarri, dagokion baimena sinatu eta dosia, ordua... idatziz zehaztu beharko dituzte.
- d) Ume batek, Ikastolan behin egonda, gaixorik jartzen bada, irakasleak gurasoak deituko ditu eta umea ahalik eta lasterren jaso beharko da.